

DBH3 MATematika: "Zenbakien mezu ezkutua" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Behaketan eta galdera gidatuetan oinarrituta, zenbakien ezaugarriak arakatu eta ziurtatu, eta horrez gain, zenbaki horiek matematikaz gaindiko alorretan egindako ekarpena adierazi eta haren baliagarritasuna balioetsi.	1.1. Eguneroko bizitzako egoeretan zenbakien bidez adieraz daitezkeen erlazioak arakatu ditu, neurrien arteko proportzioak aztertu ditu eta proportzio horien ezaugarriak bereizi ditu. 1.2. Zenbaki motak modu egokian identifikatu, sailkatu eta izendatu ditu.
2. Berreketa eta erroketaren alderantzizko eragiketa gisa erlazionatu eta haiekin eragiketak egin, adierazpenak eraldatu.	2.1. Berreketen propietateak adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu. 2.2. Idazkera zientifikoko arauak zuzen aplikatzen ditu eta zenbaki oso handiak eta txikiak idazteko erabiltzen ditu. Notazio zientifikoa adierazitako zenbakien arteko eragiketa sinpleak zuzen burutzen ditu. 2.3. Erroketaren berreketa eragiketak definizioaren bitartez eraldatzen ditu. 2.4. Erroren arteko eragiketa sinpleak kalkulatu ditu: batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak, berreketa eta erroketak. 2.5. Era guztietako emaitzak sinplifikatu ditu.
3. Arrazoiketa matematikoa baliatuz, segidaren ezaugarriak identifikatu eta haien adierazpen aljebraikoak idatzi, eta, alderantziz, segidaren adierazpen aljebraikoak eraldatu informazio berria sortu.	3.1. Segidaren adierazpenak eraldatu ditu (testua/gaiez gai/gai orokorra), haiekin eragiketak egiten ditu eta joerari dagokionez sailkatzen ditu. 3.2. Progresio aritmetikoen eta geometrikoen formulak baliatzen da informazio berria erdiesteko eta problemak ebazteko. 3.3. Ekonomiarekin erlazionaturako problemak ebazteko: interes sinplea eta konposatua. 3.4. Hizkuntza eta sinbologia matematikoa zuzen erabili ditu.